

martxoak 8 marzo

emakumeen nazioarteko eguna
día internacional de las mujeres

2012

MURRIZKETA ETA ERASOEI AURRE EGINEZ...

EMAKUMEOK GREBARA! POR UNA VIDA DIGNA

Iazko martxoaren 8tik iragartzen genuena gertatu da, eta lan-erreforma bat ezarri digute, erreforma atzerakoia —inon bada—; eta hori gutxi balitz bezala pentsioen erreformarako Akordio Sozial eta Ekonomikoa ere badugu hemen. Iazko martxotik dei egiten genuen antolakuntza eta mobilizazio sindikal feministarako.

Aurten ere gure lan- eta gizarte-eskubiderik funtsezkoenen aurkako eraso eta murrizketen segida hura aurrera doa etengabe eta batere gupidarik gabe. Oraingo honetan gure iragarpenik txarrenak gainditu dira, zeren lanaren eta negoziazio kolektiboaren erreforma modu antidemokratikoan onetsi baita, eztabaidarik gabe, ezta aurretiazko informazio-aldirik gabe ere.

Nazio-manifestazio baterako deialdia egin dugu, murrizketen aurka. Bilbon izango da otsailaren 25ean. Eta martxoaren 29ko greba orokorra ere prestatzen ari gara Hego Euskal Herri osoan.

Eta emakumeok, ordaindutako edo ordaindu gabeko langile garen aldetik, zer esan behar dugu gure inguruko egoeraz?

Herritar guztien eta langileen oinarritzko eskubideen aurkako erasoaldi orokorra ikusita, ezin dugu aipatu gabe utzi emakumeok okerren daudenen artean gaudela. Lan-merkatua sexuaren arabera bananduta dago, eta gure postuak prekarioenak izaten dira. Gure presentzia neurritz gainera da langabezian, aldi baterako enpleguan, lanaldi partzialeko enpleguan, azpienpleguan, ezkutuko ekonomian... eta esan gabe doaz ume-hazkuntza eta ordaindu gabeko zainketa-lanak. Pobreziak emakume-aurpegia zeukan eta dauka.

Badakigu oraingo erasoaldi neoliberalaren xedeak zein diren: soldatak nabarmen jaitea, enplegu duinaren partez enplegu prekarioa sortzea, eta lan-harremanetan enpresariaren boterea sendotzea. Soldaten jaitsierak eta erostehalmenaren galerak neurritz gainera eragina izango dute emakumeengan, baita pentsioen kasuan ere, emakumeen pentsioak, batez bestez, gizonenak baino apalagoak baitira.

Labur esanda, gure lan-baldintzak eta bizimodua txarragoak izango dira. Horren aurrean, emakumeok badugu zer esanik eta zer eginik.

Onetsitako neurrien sorta honela laburbildu daiteke:

-Iraizpena, hainbat bidetatik, erraztu eta merkatu.

-Negoziazio kolektiborako eskubidea indargabetu. Hitzarmen-soldatatik salbuestea erraztu. Hitzarmenen aurrera-eragina bi urtera mugatu.

-Malgutasuna areagotu. Mugigarritasun geografikoa eta funtzionala erraztu; lan-baldintzak nabarmen aldatzeko baimendutako gaien artean soldata-zenbatekoa gehitu.

-Kontratazio prekarioagoa. Kontratu berria, 50 langilerainoko enpresetarako, zerga-kendurekin eta Gizarte Segurantzaren kuotako hobariekin, eta lehen urtean iraizpen askea izango duena.

-Lanaldi partzialeko kontratua bultzatu: Horrelako kontratuen arabera zilegi da aparteko orduak sartzea. Gehienbat emakumeek dituzte horrelako kontratuak, ez dira izaten norberaren borondatezkoak, baizik eta, zainketak egiteko gizarte-zerbitzuak oso urriak direnez edo batere ez dagoenez, emakumeak lan-mota bietan aritu behar dira (ordaindutakoa eta ordaindu bakoa).

Gogora ekarri behar dugu hona badaudela beste neurri batzuk ere gizonengan eta emakumeengan eragin desberdinak dituztenak:

Gutxieneko soldata izoztea; menpekotasun-legearen indarrean sartzea atzeratzea; sektore publikoko plantillak izoztea; gizarte-gastua murriztea, eta abar.

Soberan ditugu kalera ateratzeko arrazoiak. Gainera, prozesu atzerakoi horrek gizonengan eta emakumeengan dituen eragin desberdinak ezkutatzeko ez da inorentzat mesedegarri; aitzitik, nahasgarria da sistemaren krisi honetarako benetako irtenbideak bilatzerakoan.

Horregatik aurtengo martxoaren 8an kalera aterako gara bizimodu duina izateko eskubidea eskatuz, murrizketei aurre eginez, eta greba orokorra eta etortzear dauden gainerako gizarte-mobilizazioak aldarrikatuz.

martxoak 8 marzo

emakumeen nazioarteko eguna
día internacional de las mujeres

2012

MURRIZKETA ETA ERASOEI AURRE EGINEZ...

EMAKUMEOK GREBARA! POR UNA VIDA DIGNA

El 8 de marzo del año pasado alertábamos de una reforma laboral impuesta y regresiva que, junto con el denominado Acuerdo Social y Económico referente a la reforma de pensiones, llamaba a la organización y movilización sindical feminista.

Este año seguimos en la senda de los ataques y recortes sin escrúpulos a nuestros derechos laborales y sociales más básicos. Esta vez nos enfrentamos a una reforma laboral y de negociación colectiva aprobada de forma antidemocrática y sin debate ni información previa, superando nuestros peores augurios.

Hemos llamado a una manifestación nacional contra los recortes el día 25 de febrero en Bilbao y ya estamos en marcha hacia la huelga general convocada para el día 29 de marzo en Hego Euskal Herria.

Y las mujeres, trabajadoras remuneradas y no remuneradas, ¿qué decimos ante este panorama?

Ante el ataque generalizado contra los derechos básicos de la población y de la clase trabajadora, no podemos dejar de señalar que las mujeres seguimos estando peor colocadas en un mercado de trabajo precario y dividido sexualmente.

Estamos sobre representadas en el desempleo, en el empleo temporal, a tiempo parcial y en el subempleo sin contabilizar la economía informal ni todo el trabajo reproductivo y de cuidados no remunerado. Se sigue feminizando la pobreza.

Sabemos que la actual ofensiva neoliberal busca rebajar masivamente los salarios, sustituir empleo con derechos por empleo precario, y reforzar el poder del empresario en la relación laboral. La reducción salarial y la pérdida del poder adquisitivo va a afectar de manera desproporcionada a las mujeres, también en el caso de las pensiones las cuales son más bajas que las de los hombres.

Empobrecer las condiciones de trabajo y de vida, en pocas palabras. Y ante esto las mujeres tenemos mucho que decir y qué hacer.

La batería de medidas aprobadas se concretan, entre otras, en:

-Se facilita y se abarata el despido por diversas vías.

-Se limita el derecho a la negociación colectiva. Se facilita el descuelgue salarial. La ultraactividad de los convenios se limita a dos años.

-Aumento de la flexibilidad. Se facilita la movilidad geográfica y funcional, la modificación sustancial de condiciones de trabajo añadiendo la "cuantía salarial" a las materias sobre las que se permiten modificaciones sustanciales de condiciones de trabajo.

-Contratación más precaria. Contrato nuevo en empresas de hasta 50 trabajadores y trabajadoras, con deducciones fiscales y bonificaciones en la cuota a la Seguridad Social, en el que el despido será libre durante el primer año.

-Impulso al contrato a tiempo parcial: Permite la realización de horas extraordinarias en este tipo de contratos, mayoritariamente ocupados por mujeres, que no suele ser voluntario y que cubre la ausencia, carencia de servicios sociales con respecto al cuidado.

Tenemos que recordar que hay otro tipo de medidas adoptadas que tienen impactos diferenciados para mujeres y hombres:

Congelación del salario mínimo; La moratoria de la puesta en marcha de la ley de dependencia; congelación de plantillas en el sector público y reducción del gasto social etc.

Nos sobran razones para salir a la calle. Además, el invisibilizar el efecto desigualitario para mujeres y hombres en este proceso regresivo y reaccionario no favorece a nadie y nos aleja de las soluciones reales a esta crisis sistémica.

Por eso, este 8 de marzo salimos a la calle reivindicando el derecho a una vida digna, enfrentando los recortes, y preparándonos para la huelga general y las movilizaciones sociales en camino.